

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4522

AGINDUA, 1994ko azaroaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, behin-betiko destinoa gaztelaniazkoa izan eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan 2. hizkuntza-eskakizuna duen lanpostua betetzen ari diren irakasleak oraingo lanpostuetara atxikitzea arautzen duena.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak ezartzen duenez Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioek beren barneko egiturak arrazoizkotzeko eta antolatzeko tresna dituzte lanpostu-zerrendak; horien bidez langileen beharrak adierazten dituzte eta sortutako lanpostuetarako eskatzen diren baldintzak zehazten dituzte.

Unibertsitateko kanpoko Euskal Autonomi Elkarteko Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, halaber, lanpostuen zerrendak arautzen ditu, zerrendok egiterakoan bete behar diren oinarriko arauak eta ihardunbideak adieraziz.

Hor aurrikusitakoaren indarrez, maiatzaren 4ko 124/1993 Dekretua argitaratu zen eta maiatzaren 25eko 153/1993 Dekretuak zuzenketa batzuk erantsi zizkion. Dekretu horrek unibertsitate mailakoak ez diren Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxeetako maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle tekniko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako funtzionarioen lanpostu-zerrenda onartzen du.

Hau zen Euskal Autonomi Elkartean irakasle-lanpostuen zerrenda espezialitateen eta hizkuntza-eskakizunen arabera norbanakoari egokituta egiten zen lehenengo aldia.

Dekretu horren ondorioz, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetako hainbat irakasle betetzen zizuten lanpostuei bigarren hizkuntza-eskakizuna ezarri zitzaie, irakasle horiek bere garaian gaztelaniazko lanpostuetarako izendatuak izan baziren ere. Irakasle horietako askok 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dute edo martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian adierazten den modura, eragin horietarako balio-kidea den tituluetakoren bat eskuratuta dute; edo, bestela, 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak hiru urtez betetzeko ahalmena ematen duen IGA (irakasgaitasun-aitormena) dute.

Horrenbestez, beharrezkoa da baldintzak betetzen dituzten irakasle horiek 2. hizkuntza-eskakizunari

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4522

ORDEN, de 30 de noviembre de 1994, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la adscripción a su actual puesto de trabajo de los funcionarios docentes pertenecientes a los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos de Formación Profesional que, teniendo destino definitivo en plazas en castellano, ocupan un puesto de trabajo de perfil lingüístico 2.

La Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, establece que las relaciones de puestos de trabajo constituyen el instrumento mediante el cual las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal y definen los requisitos exigidos para las plazas creadas.

También la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regula la figura de las relaciones de puestos de trabajo, señalando los principios básicos y los cauces procedimentales que deben observarse en su elaboración.

En virtud de estas previsiones, se publicó el Decreto 124/1993, de 4 de mayo, corregido por el Decreto 153/1993, de 25 de mayo, por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo reservados a funcionarios pertenecientes a los Cuerpos de Maestros, Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas en centros docentes de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Era ésta la primera vez que en la Comunidad Autónoma del País Vasco se procedía a elaborar una relación de puestos de trabajo docentes, individualizados por especialidades y perfiles lingüísticos.

Como consecuencia de este Decreto se asignó perfil lingüístico 2 a un cierto número de puestos de trabajo que se encontraban ocupados por profesores con destino definitivo pertenecientes a los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos de Formación Profesional, que habían sido nombrados, en su día, para plazas en castellano. Muchos de estos profesores tienen acreditado el perfil lingüístico 2 o son poseedores de alguna de las titulaciones declaradas equivalentes a estos efectos por la Disposición adicional Tercera del Decreto 47/1993 de 9 de marzo, o bien disponen de la habilitación IGA que les permite ocupar plazas de PL2 por un periodo transitorio de 3 años.

Por consiguiente resulta necesario establecer un procedimiento para que estos profesores que cumplen los

dagokion lanpostua beren ikastetxean eta espezialitatean eskuratu ahal izateko ihardunbidea ezartzea.

Behar hori apirilaren 19ko 163/1994 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasoa dago. Xedapen horrek dioenez 2. hizkuntza-eskakizunarekin sailkatutako lanpostura atxikitzeke ihardunbidea finkatzeko ahalmena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ematen zaio.

Azal dutako guztiaren ondorioz eta eman dizkidaten aginpiden indarrez,

XEDATU DUT:

1. atala. - Xedea.

Behin-betiko destinoa gaztelaniazko lanpostuetan duten Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko funtzionarioak orain betetzen duten lanpostura atxikitzeke ihardunbidearen deialdia arautzea da agindu honen xedea. Orain betetzen duten lanpostua 2. hizkuntza-eskakizunarekin sailkatuta dago maiatzaren 4ko 124/1993 Dekretuan onartutako lanpostu-zerrendan.

2. atala. - Esparru subjektiboa

Agindua argitaratzerakoan honako baldintza hauek betetzen dituzten funtzionarioek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan:

a) Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegokoak izatea.

b) Ihardunbidean egotea.

c) Atxiki nahi duen 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuari dagokion ikastetxe eta espezialitate berean gaztelaniazko lantokiaren jabe izatea, izendapen eta guzti.

d) 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak eragin horietarako baliokidetzat aitortzen duen tituluren bat edukitzea edo, bestela, IGA (irakasgaitasun-aitormena) aldi baterako egokitzapena edukitzea.

3. atala. - Esparru objektiboa

Agindu honen eraskinean adierazten diren ikastetxetan eta espezialitateetan gauzatu ahal izango da ihardunbidea.

Deialdian parte hartzen duten funtzionarioek eskuratu nahi dituzten lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna aitortuta izan behar dute, maiatzaren 4ko 124/1993 Dekretuaren bidez; horrezaz gain, lanpostuak ez dira aldeztu aurretik euskarazko lanpostuetan behin-betiko izendapena lortu duten funtzionarioek beteta egongo.

4. atala. - Eskabideen aurkezpena

1.- Hezkuntzako lurralde ordezkaritzetan banatuko zaizkien eredu normalizatuen arabera aurkeztu beharko dituzte eskabideak parte hartzaileek. Eskabideekin batera deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldin-

requisitos exigidos puedan ser adscritos a la correspondiente plaza de perfil lingüístico 2 de su centro y especialidad.

Esta necesidad aparece contemplada en la Disposición Adicional Segunda del Decreto 163/1994, de 19 de abril, por el que se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para establecer un procedimiento que regule la adscripción a un puesto de trabajo de perfil lingüístico 2 de estos funcionarios.

Como consecuencia de lo expuesto, y en ejercicio de las competencias que me han sido otorgadas

DISPONGO:

Artículo 1. - Objeto.

Constituye el objeto de la presente Orden la regulación de la convocatoria del proceso de adscripción de los funcionarios docentes pertenecientes a los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria y Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional, con destino definitivo en castellano, al puesto de trabajo que ocupan, calificado de perfil lingüístico 2 en la relación de puestos de trabajo aprobada por el Decreto 124/1993, de 4 de mayo.

Artículo 2. - Ambito subjetivo.

Podrán participar en esta convocatoria los funcionarios que, en el momento de la publicación de la presente Orden, cumplan los siguientes requisitos:

a) Pertenecer al Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria o al Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional.

b) Estar en situación de servicio activo.

c) Ser propietario definitivo con nombramiento para plazas en castellano de un destino en el mismo centro y en la misma especialidad que el correspondiente al puesto de trabajo de perfil lingüístico 2 al que solicita adscribirse.

d) Tener acreditado el perfil lingüístico 2 o estar en posesión de alguna de las titulaciones declaradas equivalentes a estos efectos por la Disposición adicional Tercera del Decreto 47/1993 de 9 de marzo o, en su defecto, disponer de la habilitación transitoria IGA (Irakasgaitasun-aitormena)

Artículo 3. - Ambito objetivo.

Los Centros y especialidades en los que podrá llevarse a cabo este proceso son los señalados en el Anexo de esta Orden.

Los puestos de trabajo a los que podrán adscribirse los funcionarios que participen en esta convocatoria son los que hayan resultado configurados como de perfil lingüístico 2 por el Decreto 124/1993, de 4 de mayo, que no se encuentren ocupados por funcionario que disponga con anterioridad de nombramiento definitivo en puestos de euskera.

Artículo 4. - Presentación de instancias

1.- Los participantes presentarán instancia de solicitud, según modelo normalizado, que les será facilitada en las Delegaciones Territoriales de Educación, a la que adjuntarán la documentación acreditativa del cumpli-

tzak betetzen direla egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira

2.- Eskabideak eta aurreko lerroaldian aipatzen diren agiriak, Hezkuntzako lurralde ordezkarietzan aurkeztu ahal izango dira, edo baita Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen Legearen 38.4. azpiatalean aipatzen den edozein egoitzatan ere, agindu horrek ezartzen dituen betebeharren arabera.

3.- Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea 10 asteguneko izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5. atala. - Hautapen-batzordea

Agindu hau argitaratu eta hurrengo 5 astegunetan hautapen-batzordea eratuko da. Hautapen-batzordeko kideak honako hauek izango dira:

a) Langilegoaren Kudeaketa zuzendaria edo ordezkoren bat, batzordeko lehendakaria izango dena.

b) Ikuskari nagusiak izendatutako hezkuntzako bi ikuskari tekniko.

c) Ordezkozarik gehien duen sindikatu bakoitzak aukeratutako irakasle bana.

d) Langilegoaren Kudeaketa zuzendariak izendatutako funtzionario bat. Batzordeko idazkaria izango da, hizpideduna baina hautespiderik gabea.

6. atala. - Atxikitze ihardunbidea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bost astegunetan bilduko da hautapen-batzordea lanpostuak esleitzeko ihardunbidea gauzatzeko. Honela garatuko da ihardunbidea ikastetxe eta espezialitate bakoitzeko:

- Dauden lanpostuak hautagaiak adina edo gehiago baldin badira, hautagai guztiak eskuratuko dute, besterik gabe, lanpostu bana.

- Dauden lanpostuak hautagaiak baino gutxiago baldin badira, irizpide hauen araberrako zerrenda osatuko da:

1.- Lanpostuari dagokion kidegoan funtzionario gisa aritutako denbora.

2.- Ikastetxean behin-betiko izendapenarekin eramandako denbora.

3.- Langileen Erregistroan zenbakirik txikiena izatea.

Zerrendaren-hurrenkera kontuan hartuta egingo da lanpostuen esleipena.

Eskabideak izan dituen ikastetxe eta espezialitateetan ihardunbidea amaitu eta gero, hautapen-batzordeak gainerako lanpostuak esleitzeko dagokion proposamena egingo du.

7. atala. - Deialdiaren erabakia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren

miento de los requisitos exigidos para tomar parte en esta convocatoria.

2.- Las instancias, así como la documentación a la que se alude en el párrafo anterior, podrán presentarse en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, o en cualquiera de las dependencias a las que alude el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de acuerdo con las condiciones establecidas en dicho precepto.

3.- El plazo de presentación de solicitudes y documentos será de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 5.- Comisión de selección.

En el plazo de los 5 días hábiles siguientes a la publicación de la presente Orden se constituirá una Comisión de Selección integrada por los siguientes miembros:

a) El Director de Gestión de Personal, o persona en quien delegue, que será su presidente.

b) Dos Inspectores Técnicos de Educación designados por el Inspector General.

c) Un profesor designado por cada una de las organizaciones sindicales más representativas.

d) Un funcionario designado por el Director de Gestión de Personal que actuará como Secretario de la Comisión, con voz y sin voto.

Artículo 6.- Procedimiento de adscripción

En el plazo de los 5 días hábiles siguientes al último día de plazo de presentación de solicitudes se reunirá la Comisión de Selección para llevar a cabo el procedimiento de adjudicación de plazas. Este procedimiento se desarrollará por cada centro y especialidad de la forma siguiente:

- Si el número de plazas existentes es mayor o igual que el número de aspirantes, todos ellos quedarán automáticamente adscritos a dichas plazas.

- Si el número de plazas existente es menor que el de aspirantes, éstos se ordenarán según los siguientes criterios:

1.- Mayor tiempo de servicios efectivos como funcionario de carrera del Cuerpo al que pertenece la plaza.

2.- Mayor antigüedad en el centro con nombramiento de carácter definitivo

3.- Menor Número de Registro Personal

Se adjudicarán las plazas existentes a aquellos profesores cuyo número de orden sea menor o igual que el número de plazas.

Finalizado el proceso en cada uno de los centros y especialidades en las que haya solicitantes, la Comisión de Selección elaborará la correspondiente propuesta de adjudicación de plazas.

Artículo 7.- Resolución de la convocatoria.

La convocatoria se resolverá mediante Orden del

agindu bidez erabakiko da deialdia eta, gero, dagozkion izendapenak egiteari ekingo zaio.

8. atala. – Aldi baterako atxikipenak.

IGA, aldi baterako egokitzapena, duten irakasleak ez dira behin-betiko atxikiko 2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetara, hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen ez badute behintzat. Hiru urteko epea izango dute, lehenengo atxikipenaren egunetik hasita, 2. hizkuntza-eskakizuna eskuratzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen. – Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailko Langilegoaren Kudeaketa zuzendariak aginpidea du agindu honen edukina garatzeko.

Bigarrena. – Agindu honen aurka interesdunek Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Administrazioarekiko Auzietarako Eskumena arautzen duen Legeko 37.1 azpiatalaren arabera eta azaroaren 26ko Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen 30/1992 Legeko 109.c) puntuaren eta hamargarren xedapen gehigarriaren arabera.

Hirugarrena. – Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko azaroak 30.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

Consejero de Educación, Universidades e Investigación y se procederá a realizar los nombramientos que correspondan.

Artículo 8. – Adscripciones transitorias.

La adscripción de los profesores con habilitación transitoria IGA a los puestos que tengan asignado Perfil Lingüístico 2 no será definitiva en tanto en cuanto no acrediten dicho perfil, para lo cual dispondrán de un plazo de tres años a partir de la fecha de efectos de esta primera adscripción.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. – Se autoriza al Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación para el desarrollo del contenido de la presente Orden.

Segunda. – Contra la presente Orden, podrán los interesados interponer Recurso contencioso-administrativo conforme a los artículos 37.1. de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y 109.c) y Disposición adicional décima de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de la Administración del Estado y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera. – La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 1994.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

ERASKINA / ANEXO

LANPOSTUEN BANAKETA IKASTETXE ETA IRAKASGAIEN ARABERA / DISTRIBUCION DE PLAZAS POR CENTROS Y ESPECIALIDADES

| IKASTETXEA CENTRO | UDALERRIA MUNICIPIO | FIL FIL | GRE GRI | LAT LAT | GAZ LEN | GEO GEO | MAT MAT | FIS FIS | BIO BIO | MAR DIB | FRA FRA | ING ING | MUS MUS | GOR EDU | TEK TEC | MET TME | ADT TAD | ELT TEL | MEP PME | ADP PAD |
|-------------------------------|------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| I.F.P. Mendizabala L.H.I. | Vitoria-Gasteiz | | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | | | | | |
| I.F.B. Bidebieta L.H.I. | Basauri | | | | 1 | | | | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Andra Mari L.H.I. | Galdakao | | | | | 1 | | | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Aixerrota L.H.I. | Getxo | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.F.P. Lekeitio L.H.I. | Lekeitio | | | | | | | | | | | | | | | | | | | 1 |
| I.F.P. Santa Maria L.H.I. | Mungia | | | | | 1 | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | |
| I.F.P. Benito Barrueta L.H.I. | Bermeo | | | | 1 | | | | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Txurdinaga 2 L:H.I. | Bilbo-Bilbao | | | | | | 1 | | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Saturnino Peña L.H.I. | Sestao | | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Tartanga L.H.I. | Erandio | | | | 1 | | | | | 1 | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Barrutialde L.H.I. | Arratzu | | | | 1 | | | 1 | | | | | | | | 1 | | | | |
| I.F.P. Zornotza L.H.I. | Amorebieta | | | | 1 | 1 | | | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Aretxabaleta L.H.I: | Aretxabaleta | | | | 1 | 1 | | | | | | | | | | | | | | |
| I.F.P. Azkoitia L.H.I. | Azkoitia | | | | | | | 1 | | | | 2 | | | | | | | | 3 |
| I.F.P. Escuela Armeria L.H.I. | Eibar | | | | | | | 2 | | | | | | | | | | | | 2 |
| I.F.P. Elgoibar L.H.I. | Elgoibar | | | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | |
| I.F.P. Irun L.H.I. | Irun | | | | | 1 | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.F.P. Mutriku L.H.I. | Mutriku | | | | 1 | | | | | | | | | | | | 1 | | | |
| I.F.P. Renteria L.H.I. | Renteria | | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | |
| I.F.P. Easo L.H.I. | Donostia-S.Seb. | | | | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | | | | | | | |
| I.F.P. Tolosa L.H.I. | Tolosa | | | | 1 | | 1 | | | 1 | | 1 | | | | | | | 2 | 1 |
| I.F.P. Usurbil L.H.I. | Usurbil | | | | 2 | | 2 | 1 | | 1 | | | | | | | 1 | | 1 | |
| I.F.P. Miguel Altuna L.H.I. | Bergara | | | | | 1 | 2 | | | 1 | | 1 | | | | 1 | | 1 | 1 | |
| I.F.P. Zumaia L.H.I. | Zumaia | | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | | | | | 1 |
| I.B. Canciller Ayala B:I: | Laudio-LLodio | | | | | | | | 1 | | | | 1 | | | | | | | |

| IKASTETXEA <i>CENTRO</i> | UDALERRIA <i>MUNICIPIO</i> | FIL <i>FIL</i> | GRE <i>GRI</i> | LAT <i>LAT</i> | GAZ <i>LEN</i> | GEO <i>GEO</i> | MAT <i>MAT</i> | FIS <i>FIS</i> | BIO <i>BIO</i> | MAR <i>DIB</i> | FRA <i>FRA</i> | ING <i>ING</i> | MUS <i>MUS</i> | GOR <i>EDU</i> | TEK <i>TEC</i> | MET <i>TME</i> | ADT <i>TAD</i> | ELT <i>TEL</i> | MEP <i>PME</i> | ADP <i>PAD</i> |
|----------------------------------|-------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| I.B. Dolores Ibaruri B.I. | Abanto | | | | | | 1 | | | 1 | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Beurko B.I. | Barakaldo | | | | 1 | | | | 1 | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Ignacio Arozena B.I. | Bermeo | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Ibarrekolanda B.I. | Bilbo-Bilbao | | | | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | | | | | 1 | | | | | | |
| I.B. Gabriel Aresti B.I. | Bilbo-Bilbao | 1 | | | | 1 | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. San Adrián B.I. | Bilbo-Bilbao | 1 | | | 1 | 1 | 1 | | | | 1 | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Fray Juan Zumárraga B.I. | Durango | | | | 1 | | 1 | | | | 1 | | | | | | | | | |
| I.B. Galdakao B.I. | Galdakao | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | | |
| I.B. Getxo 3 B.I. | Getxo | | 1 | | 1 | | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Gernika B.I. | Gernika | | 1 | 1 | 1 | 1 | | | | | 1 | 1 | 1 | 1 | | | | | | |
| I.B. José M. Barandiarán B.I. | Leioa | | | | 1 | | | | 1 | | | | | 1 | | | | | | |
| I.B. Lauaxeta B.I. | Mungia | | | | | | 1 | | | | 1 | | | | | | | | | |
| I.B. Ondarroa B.I. | Ondarroa | | | | | 1 | | | | 1 | | | | | | | | | | |
| I.B. Uribe Kosta B.I. | Plentzia | | | 1 | | | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. San Salvador del Valle B.I. | Trapagaran | | | | | | | | 1 | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Axular B.I. | Santurtzi | | | | 1 | | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Balmaseda B.I. | Balmaseda | 1 | | | 1 | 1 | | 1 | | | 1 | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Arratia B.I. | Igorre | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Txorierra B.I. | Derio | | | | | | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Ballonti B.I. | Portugalete | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | | |
| I.B. Leizarán B.I. | Andoain | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | |
| I.B. Azpeitia B.I. | Azpeitia | | | 1 | | | | | | | 1 | | | | | | | | | |
| I.B. Txindoki B.I. | Beasain | 1 | | 1 | 2 | | 1 | 1 | | 1 | 1 | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Ignacio Zuloaga B.I. | Eibar | | | 1 | | 1 | 1 | | | 1 | 1 | 1 | | 1 | | | | | | |
| I.B. Arreiturre B.I. | Elgoibar | | | 1 | | | | | | 1 | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Hondarribia B.I. | Hondarribia | | | 1 | 2 | 1 | 1 | | | 1 | 1 | 1 | | 1 | | | | | | |
| I.B. Agustín Iturriaga B.I. | Hernani | 1 | | | 2 | 1 | | | | | | | | 1 | | | | | | |

| IKASTETXEA <i>CENTRO</i> | UDALERRIA <i>MUNICIPIO</i> | FIL <i>FIL</i> | GRE <i>GRI</i> | LAT <i>LAT</i> | GAZ <i>LEN</i> | GEO <i>GEO</i> | MAT <i>MAT</i> | FIS <i>FIS</i> | BIO <i>BIO</i> | MAR <i>DIB</i> | FRA <i>FRA</i> | ING <i>ING</i> | MUS <i>MUS</i> | GOR <i>EDU</i> | TEK <i>TEC</i> | MET <i>TME</i> | ADT <i>TAD</i> | ELT <i>TEL</i> | MEP <i>PME</i> | ADP <i>PAD</i> |
|--|-------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| I.B. Pio Baroja B.I. | Irun | | | | | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | | 1 | 1 | 1 | | | | | | |
| I.B. Legazpia B.I. | Legazpia | 1 | | | 1 | 1 | | | | | | | | | | | | | | |
| I.B. Arrasate B.I. | Arrasate | | | | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | | 1 | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Rodrigo Mercado B.I. | Oñati | | | | 1 | | | | | | | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Koldo Mitxelena B.I. | Renteria | 1 | | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 2 | | | 1 | 1 | 1 | | | | | | |
| I.B. Usandizaga B.I. | Donostia-S.Seb | 1 | | 1 | 2 | 1 | | | | | 1 | 1 | | 1 | | | | | | |
| I.B. Peñafiorida B.I. | Donostia-S.Seb | | | | 1 | 1 | 1 | 1 | | 1 | | | | 1 | | | | | | |
| I.B. Bidebieta B.I. | Donostia-S.Seb | | | | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | | 1 | | | | | | |
| I.B. Xabier Zubiri B.I. | Donostia-S.Seb | 1 | | | 1 | | | | | | | | 1 | 1 | | | | | | |
| I.B. Alza B.I. | Donostia-S.Seb | | | | | 1 | | | 1 | | | | | | | | | | | |
| I.B. Orixe B.I. | Tolosa | | | | 1 | 1 | 1 | | | | 1 | 1 | | 1 | | | | | | |
| I.B. Ipintza B.I. | Bergara | | | | | 1 | | 1 | | | | | | 1 | | | | | | |
| I.B. Oianguren B.I. | Ordizia | 1 | | 1 | 1 | | 1 | | | | 1 | 1 | | | | | | | | |
| I.B. Jose M. ^a Iparragirre B.I. | Urretxu | | | 1 | 1 | 1 | | 1 | | | | | | | | | | | | |
| I.B. Lizardi B.I. | Zarautz | 1 | | | 3 | | | | | | | | | | | | | | | |

| KODEA | IRAKASGAIA | CODIGO | ESPECIALIDAD |
|-------|------------------------------|--------|------------------------------|
| FIL | Filosofia | FIL | Filosofía |
| GRE | Grekeria | GRE | Griego |
| LAT | Latina | LAT | Latín |
| GAZ | Gaztelera eta Literatura | LEN | Lengua Española y Literatura |
| GEO | Geografia eta Historia | GEO | Geografía e Historia |
| MAT | Matematikak | MAT | Matemáticas |
| FIS | Fisika eta Kimika | FIS | Física y Química |
| BIO | Biologia eta Geologia | BIO | Biología y Geología |
| MAR | Marrazketa | DIB | Dibujo |
| FRA | Frantsesa | FRA | Francés |
| ING | Ingelesa | ING | Inglés |
| MUS | Musika | MUS | Música |
| GOR | Gorputz Hezkuntza | EDU | Educación Física |
| TEK | Teknologia | TEC | Tecnología |
| MET | Metalaren Teknologia | TME | Tecnología del Metal |
| ADT | Administrazio Teknologia | TAD | Tecnología Administrativa |
| ELT | Eleztrizitatearen Teknologia | TEL | Tecnología de Electricidad |
| MEP | Metaleko Praktikak | PME | Prácticas del Metal |
| ADP | Administrazio Praktikak | PAD | Prácticas Administrativas |

ZUZENTZA SAILA

4523

AGINDUA, 1994ko azaroaren 21ekoa, Zuzentza sail-buruarena, Zuzentza Sailean dauden eta izaera pertsonaleko xehetasunak dituen fitxategi automatizatuak arautzen dituen.

Izaera pertsonaleko xehetasunen lanketa automatizatu arautzeari buruzko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoak bere arauketan, izaera pertsonaleko xehetasunak dituzten eta bere erantzukizunekoak diren fitxategi automatizatuak arautzeari buruzko xedapen bat emateko idatzizko agindua ematen die herri administrazioei.

Fitxategi horiek egon badaudela gauza jakina denez eta garrantzizkoak direla kontutan izanik, Zuzentza Sailarekin zerikusirik duten bi egoera informatiko aipatu behar dira. Egoera horiek ez dira aditzera ematen agindu honetan. Alde batetik, Elkarleen Erregistroa dugu. Horrek, Konstituzioaren 22. atalean eta Elkar-teei buruzko 3/1988 Legean jasotakoaren arabera, jendeari berri emateko helburua betetzen du; horregatik, hain zuzen, aipatutako Lege Organikoko 2.2.a) atalean ezarritakoaren arabera, lege horren esparrutik kanpo gelditzen da erregistroa. Beste alde batetik, Zuzentzako Administrazioa Informatizatzeko Guztizko Planaren aplikazioak finkatzerakoan izandako garapenaren ondorio diren fitxategiak daude; plan hori Zuzentza Sailak diseinatutakoa da, eta sail horri dagokio laguntza teknikoa eta logistikoa eskaintzea. Arauketa, ordea, ez dagokio berari, izan ere, Euskal Autonomi Elkarteko organo judizialen esku baitago.

Ondorioz, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa betez eta herritarrei eurenak diren eskubide legitimoak bermatzeko, hauxe

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA

4523

ORDEN de 21 de noviembre de 1994, del Consejero de Justicia, por la que se regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal existentes en el Departamento de Justicia.

La Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, de Regulación del Tratamiento Automatizado de los Datos de Carácter Personal establece, dentro de su regulación, el mandato expreso a las Administraciones Públicas de dictar una disposición de regulación de los ficheros automatizados de su responsabilidad que contengan datos de carácter personal.

Dado tanto el público conocimiento de su existencia como su especial importancia, debe hacerse mención a dos situaciones informáticas relacionadas con el Departamento de Justicia que no se incluyen en la presente Orden. Por una parte se encuentra el Registro de Asociaciones, el cual, en virtud de lo previsto en el artículo 22 de la Constitución y en la Ley 3/1988 de Asociaciones, se configura a los exclusivos efectos de publicidad, característica ésta que le hace quedar excluido del ámbito de la Ley Orgánica, según lo establecido en el artículo 2.2.a). Por otra, se hallan los ficheros generados a raíz del desarrollo en la implantación de las diversas aplicaciones del Plan de Informatización Integral de la Administración de Justicia diseñado por este Departamento, al cual le corresponde la labor de apoyo técnico y logístico pero no su regulación por cuanto dependen de los órganos judiciales radicados en la Comunidad.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, y al objeto de garantizar a los ciudadanos el ejercicio de sus legítimos derechos